

zer lengoaiatan erran duzu meza?; har ezazu lengoaia horiek dakiten norbait; lengoaia baten ortografia, eta abar. Ez da lengoaia gizakiak duen berezko ahalmena, baizik hizkuntza jakin bat (frantsesa, euskara edo ingelesa), edo mintzaira bat. Axularrek bereizten ditu hizkuntza eta lengoaia... gauza bera esateko: Zeren hori da ifernuko erdara, lengoaia eta hizkuntza. Ingelesak ere hitz bakarra du bi kontzeptuak adierazteko: *language*. Gaztelaniak (eta frantsesak) *lenguaje* (ahalmena) eta *lengua* (hizkuntza jakin bat) bereizten ditu. Zer egin behar du euskarak? Batzuen ustez aski da, ingelesak bezala, bat hautatzea: *hizkuntza*. Beste batzuek bereizketa proposatzen dute: *hizkuntza*, baina *lengoaia informatikoa* (adibidez), *lengoaia* hitza bultzatuz, baina euskaraz izan ez duen esanahia emanez. Badu zentzurik horrek? Ezetz uste nuen nik, erakusketa bat zela-eta ondoko hau itzultzea eskatu zidaten arte: “Lenguaje y lenguas”. Baina hizkera terminologiko berezi hori zientzialariek berek erabaki beharko dute: noiz, jatorrizkoarekin eta zientzia esanahiarekin zintzoak izan nahirik, euskara bortxatza behartua ikusten duten bere burua, eta noiz, euskararekin leial izan nahirik, zientziaren adieraziak bortxatzeko arriskuan erortzen diren. Errezeta sinplerik ez da hor. Baina ez dut uste horrek literaturan eta bestelako erregistroetan indar bera duen. Itzultzaileak askeago ikusi behar du bere burua, ezinbestez.

Liburua irakurri behar da: irakurri, denok ohar gaitezen noraino eraman gaitzakeen garbizaletasunaren kontuak. Behin irakurri ondoren, horiek guztiak kolkoan sartu behar dira, eta apaltasunez onartu kontu hauetan konpontzen ahal ditugun kontuak konpontzen saiatuko garela, eta beste hainbestetan gure ahaleginek ez dutela, beharbada, nahi genukeen bezalako arrakastarik izanen. Ezin dutelako izan.

Pello Salaburu



IZTUETA AZURMENDI, Ibai
Cultura vasca vs Euskal kultura

Donostia: Utriusque Vasconiae, 2015
379 or. ; 21 cm
ISBN: 978-84-942531-4-0

Fernando Lázaro eta Vicente Tusónen batxilergoko *Literatura española* dakarkit burura Ibai Iztueta Azurmendiren azken liburuak. Espainiako errege akademiaren zuzendari zenak idatzitako eskuliburuak Espainiar literaturaren bilduma egitea omen zuen xede. Hegoaldean 1980. hamarkadan derrigorrezko ikasketa programako liburukoteak gaztelaren aurreko erromantzeetan idatzitako epika eta poetikatik hasi eta XX. mendeko lehen laurdeneko egileen berri ematen zuen. Bazuen liburu hark, ordea, tranpa bat gordea: Espainiar estatuan idatzitakoez gain, Latinoamerikako hainbat egileren lanak biltzen zituen ere. Alabaina, *Literatura española* ez zen egileen aburuz soilik espainieraz idatzitakoa, baizik eta Espainia delakoan

ekoitzitakoa ere. Bi aterkiren abaroen kokatzen zen liburua: lehenak, hizkuntzari zegokionak, -orri kopuruari zegokionez zabalena eta mamitsuena-, penintsula iberiarretik at mundu zabalera hegaldarazten zuen irakurlea, mundu literario aberats eta anitzari ate bat irekiaz, bai estilo, garai eta gaien aldetik; bigarrenak, lurraldetasunari zegokionak, aldiz, liburuaren amaierako orri sorta bat besterik ez zuen biltzen. Bertan, orri pare batetan laburbilduta, Espainiar estatuko beste hiru hizkuntza ofizialetako erakusleio izan asmo zuen: galizieraz, katalaneraz eta euskaraz idatziriko XX. mende hastapeneko literatura hautaketa apala. Hizkuntza bakoitzeko autore bana. Eskuliburu arruntaren itzalpean, auzi potolo bat jartzen zuen liburua hark, hartara, mahai gainean: bateragarriak al dira hizkuntza eta lurraldetasuna izenondo beraren baitan? Izendapena ez baita inondik inora kontu inuzentea. Hala, galdera sorta luzea sorrarazten du liburua: izenondo beraren baitan –kasu honetan ‘española’– anbiguotasunak eta beronen erabilerak zer gordetzen du, zer azalazten aldi oro? Nola kudeatu aipatu bi irizpideen arteko kontraesana? Eta, auzia gertuagora ekarriaz, nola itzuli euskarara aipatu liburuaren izenburua? : “Espainierazko literatura”, “Espainiako literatura”, “Espainiar literatura”...?

Hain zuzen ere, antzeko argudiatze ildotik abiatzen da Ibai Iztuetaren doktorego tesia oinarri duen liburua. Moldaketak moldaketa, doktorego tesiaren egitura eta estiloa, bai hizkuntza zein formari dagokionean, nabariak dira. Edukiari dagokionez, Iztuetak azken mende erdian euskal identitatearen inguruan gizarteratu den eztabaida, hausnarketa eta proposamenak arakatzeari heldu dio lan honetan, alegia, zer lotura dago identitatea eta hizkuntzaren artean? Nola islatu eta non kokatu lurraldetasunaren auzia? Zer nola gorpuzten da kultura hizkuntza gutxiagotuen kasuan? Zer forma eta baliabide hautatu, garatu eta baliatzen ditu? Egun gaurkotasan handiko eztabaiden muinean dauden auziak plazaratzen dituzten galderak ditugu, ondorio eta eragin politiko nabarmenak dituztenak, hasi instituzioen kultura politiken definizio –eta finantzaketa sistematik– gizarte zibiletik eta sortzaileengandik abian jarritako hausnarketa eta proposamenetaraino. Galdera horiek, maila teorikoan hamaika egileren lanetan islaturik daudenak, komunitate zehatz bati buruz pausatzen ditu Iztuetak euskal komunitateari buruz, alegia. Egite horretan, lanaren hasieran aitortzen duen moduan, probokatzailatzat har daitekeen posizio batetatik heldu nahi izan dio gaiari.

Euskara eta euskal hiztunek osatzen duten komunitateaz harago eramaten gaitu liburu ruko aztergaiak: dikotomia gisara, elkarrekiko aurkari moduan aurkezten baitizkigu “euskal kultura” eta “cultura vasca”. “Euskal kultura euskaraz baino ez da posible ala espainieraz eta frantsesez ere bai?”. Horra liburuak abiapuntutzat duen galdera. Soilik euskaraz egiten dena dela ziurtatu zuen Jose Luis Alvarez Enparantza Txilardegi-k. Besteren artean Ramon Zallok, berriz, frantsesez eta espainieraz ere sor daitekeela argudiatu dute. Hizkuntzaren erabilera hainbat kasutan gerta ohi den moduan, definitzailea da honakoan. Izenondoaren (eta beronen erabileraren) baitan laburbiltzen da Iztuetak aztergai duen korapiloa: euskal/vasco-a. Bere lanean, Iztuetak orain artean maiz pausatu izan den galderari buelta ematen dio: “Hau da ‘euskal kultura posible al da euskararik gabe?’ galderatik abiatu ordez, ‘euskara posible al da euskal kulturari buruzko diskurtso jakin bat gabe?’”. Helburu akademiko argiaz gain, badu bere lanak helburu programatiko bat ere, galderatik abiatuoriko eztabaidaren sozializazio beharra azpimarratzen baitu (296. orr).

Lau zatitan dago antolatua liburua, luzeraz eta edukiz zertxobait desorekatuak. Lehenak atarikoaren tokia hartzen du, “oinarrizko galderak, premisak eta beste” izenburupean. Bertan irakurleari gaia aurkezten dio, bai eta abiapuntu den ikerlanaren helburu eta nondik norakoa ere. Bigarren atala luzeena da, 140 orri inguruan Iztuetak kulturaren esanahiak aurkeztu eta arakatzten ditu. Hiru ardatz nagusiren inguruan antolatzen du zati hau: herriak, gizartea, eta egileak argitze ideologikoa deritzona, zeinetan aurreko bi ataletan itzulmiran izandako identitate kontzeptua jartzen duen erdigunean, hizkuntzarekin batera. Bi gai hauek izango dira hain zuzen ere hurrengo atalaren ardatz nagusia. Hirugarren zatian ‘euskal identitatea eta euskal kultura’ du izenburutzat, eta bertan jasotzen da liburuaren mamia, hiru atal nagusiren bueltan oraingoan ere: identitateak –pluralean–, ‘ideologiak eta irudikapen sozialak’ eta, azkenik, ‘diskurtsoak’. Azken atalak liburuaren izenburua jasotzen du eta lanaren

ondorioak bildu eta aurkezten dizkigu. Lehenaz aparte, gainerako atal bakoitzak baditu bere ondorio propioak. Azpimarratzekoa da lan honetan informazio iturri oparoa eskaintzen dutela oin oharrek eta hori kontutan hartuta irakurketa asko erraztuko luke oin oharrak fisikoki testutik gertu izateak eta ez orain moduan atalka sailkatuta, atal bakoitzaren amaieran.

Diziplina askotarik edaten du egileak: soziolinguistikatik, noski, baina baita filosofia, zientzia politikoa, soziologia eta are antropologia eta ikasketa kulturaletatik ere. Zenbaitetan baina, aniztasun horrek marko teorikoaren mugak zedarritzea zailtzen du, ez baita berdina kultura –edo identitatea– kontzeptuaren gaineko eztabaida akademikoa antropologiaren ikuspegitik edo zientzia politikoen ikuspegitik. Liburuan jasotzen duen bibliografia anitzean faltan sumatzen dira halaber zenbait egileren azken lanak, hala nola Imanol Galfarsororen *Kultura eta identitate erbesteratuak* zein Antton Lukuren *Euskal kultura?* aipatu auziaren inguruan egindako ekarpen interesgarri –eta bere garaian berritzaile– izan diren aldetik.

Ekarpen interesgarria izanagatik, baditu liburuak zenbait muga. Alde batetik, arestian esandakoaren ildotik, hautatutako terminologiari dagokionez, ‘nazioa’ eta ‘etniaren’ inguruko irakurketa kritikoa egiten badu ere, ez da tamaina bereko lanik ageri ‘herria’ kontzeptuari dagokionez. Neurri handi batetan aintzat hartutako kontzeptu gisa darabilki Iztuetak, “jarrera kontu” gisa laburbiltzen du herriak identifikatzea (54. orr.), autoadskripzioaren araberrako ariketaren baitara mugatuaz, ahazturik, nonbait, “herria” kontzeptuaren atzean dauden inplikazio politiko baina baita definizio eta irakurketa akademikoak ere. Lanean eskaintzen zaion tarte baina lanketa sakonagoa merezi du, batik bat korapiloaren matazetako bat dela aitortuz gero. Besteak beste, interesgarri litzateke ere duela zenbait hamarkadatik hona nazio-arteko testuinguruan mahai gainera ekarritako ingelesezko ‘peoples’ terminoaren pluralaren markaren auzia¹. Azkenik, azken urte hauetan antropologian zein zientzia politikoetan herri-tar /hiritar kontzeptuen inguruan egin den hausnarketa euskal testuinguruan sakonago kokatzeak mereziko luke, adibide praktiko eta etnografikoen bidez.

Hizkuntza eta identitatearen arteko lotura da liburuaren ardatz nagusietako bat, eta hari horri tiraka hitz egiten digu Iztuetak hizkuntza komunitateari buruz, sentimendua eta borondatea eta atxikimendu komunitatea bereziz. Bi atxikimendu komunitate azaleratzen dira ikuspegi honen baitan, euskararen ingurukoa bata, erdar(ar)en inguruko bestea. Eta hain zuzen ere horren baita datza egilearentzat erronka nagusia, “euskara gizartekoa eta herriarena” bilakaratzea. Lazaro Carreteren literatura liburuak agerian jarri moduan, hemen ere hizkuntza eta gentilizioaren arteko auzia dago mahai gainean. Eta hala, hastapeneko galderari erantzun definitibo eman gabe, “euskal” izenondoaren esanahia eta “vasco” izenondoaren azterketa mamitsua egiten du lan honetan. Azken hamarkadatan euskal kultura aztergai duten lanen baitan ezbaierik gabe ekarpen interesgarria eta irakurketa iradokitzaileak mahai gaineratzen ditu Iztuetak bere lanean.

Aitzpea Leizaola

1. Ingeleraz gramatikalki singularren marka izan arren berez plurala adierazten duen “people” terminoaren ordez, “peoples” terminoa aldarrikatzen dute hainbat kolektibo eta ekimenez.